

**TOKIKO GOBERNU BATZARRA 2017KO  
UZTAILAREN 04AN EGINIKO OHIKO BILKURARI  
DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, 2017ko uztailaren 04ko 09:00 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ esanetara (*Orereta/Errenteriako EHBildu*), ondoko zinegotziak elkartu dira:

**Orereta/Errenteriako EHBildu**

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

**Errenteria IrabaziZ**

- Yon COLLAR RIOSECO
- Nagore BASURTO ESCAMILLA

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Garazi Lopez de Echezarreta Auzmendik, (*Orereta/Errenteriako EHBildu*).

Bertan dago, Egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin idazkaria.

**1. Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko ekainaren 20an eginiko ohiko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.**

Idazkariak Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko ekainaren 20an egindako ohiko bilkurari dagokion akta berri eman ondoren.

Inolako aldaketarik egin gabe onartu dute.

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE JUNTA DE  
GOBIERNO LOCAL CELEBRADA EL DÍA 04 DE  
JULIO DE 2017**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:00 horas del día 04 de julio de 2017, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de Julen MENDOZA PEREZ (*Orereta/Errenteriako EHBildu*), los siguientes Concejales:

**Orereta/Errenteriako EHBildu**

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

**Errenteria IrabaziZ**

- Yon COLLAR RIOSECO
- Nagore BASURTO ESCAMILLA

No asiste excusando su inasistencia, Garazi Lopez de Echezarreta Auzmendi (*Orereta/Errenteriako EHBildu*).

Asiste y da fe del Acto la Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

**1. Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria de fecha 20 de junio 2017.**

Leída por la Secretaria General el Acta correspondientes a la Sesión Ordinaria de fecha 20 de junio de 2017.

Se aprueba sin observación alguna

## **2. “Errenteriako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Plan Integrala” onartzeko proposamena.**

### **Aurrerakinak**

Errenteriako Udaleko Kiroletako azpisailak herriko kirol errealitatearen gaineko diagnostikoa egiteko asmoz, “Errenteriako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Plan Integrala” egin duela ikusita, Errenteriako kirol etorkizuna hobeto planifikatzen laguntzen duen kirolaren ikuspegi berria eraikitzeari begira.

Plan honetaz 2017ko martxoaren 21eko Kiroletako Azpisailaren Informazio-Batzordean hitz egin zen.

Plan honetaz Errenteriako Kirolaren Aholku-Kontseiluak 2017ko martxoaren 14an izandako bileran hitz egin zen.

Errenteriako Udaleko departamentuetako teknikoek oniritzia eman diote Kiroletako Azpisailaren arduradunak 2017ko maiatzaren 11n emandako txostenari, sail edo azpisail bakoitzaren eskumenen inguruko alderdiei dagokienez.

Udal aholkulari juridikoak bere oniritzia eman du 2017ko ekainaren 13an.

Kiroletako Azpisaileko Zinegotzi Delegatuaren proposamenez.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez.

### **ERABAKI DU**

LEHENENGOA.- “Errenteriako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Plan Integrala” onartzea.

## **2. Propuesta de aprobacion del “Plan Integral de la Actividad Física y del Deporte de Errenteria”.**

### **Antecedentes**

La Subárea de Deportes del Ayuntamiento de Errenteria ha elaborado el “Plan Integral de la Actividad Física y del Deporte de Errenteria” con el objetivo de establecer un diagnóstico de la realidad deportiva del municipio y de construir una nueva visión de la función del deporte que contribuya a una mejor planificación del futuro deportivo de Errenteria.

El Plan fue informado en la Comisión Informativa de Deportes de fecha 21 de marzo de 2017.

El Plan fue informado en el Consejo Asesor del Deporte de Errenteria en su reunión del 14 de marzo de 2017.

El personal técnico de los diferentes departamentos del Ayuntamiento de Errenteria ha dado su conformidad al informe del responsable de la Subárea de Deportes, de fecha 11 de mayo de 2017, en aquellos aspectos del mismo que afectan a las competencias de sus áreas o subáreas.

El asesor jurídico ha dado su visto bueno el 13 de junio de 2017.

A propuesta del Concejal Delegado de la Subárea de Deportes.

La Junta de Gobierno Local , por unanimidad.

### **ACUERDA**

PRIMERO.- Aprobar el “Plan Integral de la Actividad Física y del Deporte de Errenteria”.

BIGARRENA.- Akordio honen berri ematea udal sail eta azpisailei, baita Errenteriako kirol elkarte, ikastetxe eta gizarte eragileei ere.

SEGUNDO.- Comunicar el presente acuerdo a las diferentes áreas y subáreas municipales, así como a todas las entidades deportivas, centros educativos y entidades sociales de Errenteria.

### **3. "Errenteriako Udalari etxeetako errefusa gaika biltzeko edukiontzien horniketa" adjudikatzea.**

2017ko apirilaren 6ko Alkatezaren Ebazpenaren bidez, espedientea ireki zen "Errenteriako Udalari etxeetako errefusa gaika biltzeko edukiontzien horniketa" kontratatzeko, prozedura Irekiaren (hainbat irizpide) bitartez.

Baliozko epean bi (2) proposamen aurkeztu dira: "CONTENUR, S.L." eta "ROS ROCA, S.A.U.".

Kontratazio-mahaiak, 2017ko ekainaren 5ean, proposatu zuen kontratua Asier Villanueva Gorgolas Jaunari, "CONTENUR, S.L."-ren izenean esleitzea, hain zuzen, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena baita, 217.643,16 euroko zenbatekoarekin (%21 BEZa barne) eta hamar asteko hornitzeko epearekin, lau faseetan.

2017ko ekainaren 8ko Alkatezaren Ebazpen bidez, proposatutako adjudikazio-hartzaile-ri, eskatu zitzaion, hamar (10) laneguneko epean lizitazioa arautzen duen baldintza-agiriaren 15. Klausulan adierazitako dokumentazioa aurkez zezan.

Interesatuak eskaturiko dokumentazioa ekarri du,

### **3. Adjudicación del "Suministro de contenedores para la recogida selectiva domiciliaria de fracción resto al Ayuntamiento de Errenteria".**

Visto que por Resolución de Alcaldía de fecha 6 de abril de 2017 se incoó expediente para la contratación del "Suministro de contenedores para la recogida selectiva domiciliaria de fracción resto al Ayuntamiento de Errenteria", mediante procedimiento Abierto (varios criterios).

Visto que en el plazo hábil se han presentado dos (2) proposiciones correspondientes a "CONTENUR, S.L." y "ROS ROCA, S.A.U.".

Visto el acuerdo de la Mesa de Contratación de fecha 5 de junio de 2017, proponiendo como adjudicatario del contrato a D. Asier Villanueva Gorgolas, en representación de "CONTENUR, S.L.", al ser la más ventajosa para los intereses públicos, por un importe de 217.643,19 euros (21% IVA incluido) y un plazo de suministro de diez semanas, en cuatro fases.

Visto que mediante Resolución de Alcaldía de fecha 8 de junio de 2017 se requería al adjudicatario propuesto, para que en el plazo de diez (10) días hábiles aportara la documentación indicada en la cláusula 15ª del pliego de condiciones que rige la licitación.

Visto que el interesado ha presentado la

baita 8.993,51 euroko zenbateko behin betiko bermea ere.

Kontratazio Mahaiko buruaren proposamenez.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez.

### ERABAKI DU

1.- Asier Villanueva Gorgolas Jaunari, "CONTENUR, S.L."-ren izenean (IFK: B-82806738) ADJUDIKATZEA, "Errenteriako Udalari etxeetako errefusa gaika biltzeko edukiontzien horniketa" egiteko izeneko kontratua, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena baita, 217.643,16 euroko zenbatekoarekin (%21 BEZa barne) eta hamar asteko hornitzeko epearekin, lau faseetan, betiere baldintza ekonomiko-administratiboen eta Teknikoen agirien arabera, hala nola espedientean jasota dagoen adjudikazio-hartzailearen eskaintzeri jarraiki. (A-1694-2016)

2.- JAKINARAZTEA adjudikazioa adjudikatzaileri izan ez diren lizitatzaileri guztiei.

3.- Era berean, ESKATZEA adjudikazio-hartzaileari 10 eguneko epean, adjudikazioaren jakinarazpena egin denetik kontatzen hasita, bertaratzeko Udaletxe honetan, modu horretan kontratua sinatu dadin administrazio dokumentuan.

Kontratua sinatzeko ekitaldia Idazkaritza Orokorreko bulegoetan (Herriko plaza z/g - 2. solairua) egingo da Zerbitzuak hala eskatuta.

4.- ARGITARATZEA kontratuaren adjudikazioa, Errenteriako Udalaren kontratatzailearen profilean eta GAO-n iragarki baten bidez.

documentación requerida y una garantía definitiva por importe de 8.993,51 euros.

A propuesta de la Presidenta de la Mesa de Contratación.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad.

### ACUERDA

1.- ADJUDICAR a D. Asier Villanueva Gorgolas, en representación de "CONTENUR, S.L." (CIF: B-82806738) el contrato para la realización del "Suministro de contenedores para la recogida selectiva domiciliaria de fracción resto al Ayuntamiento de Errenteria", al ser la más ventajosa para los intereses públicos, por un importe de 217.643,16 euros (21% IVA incluido) y un plazo de suministro de diez semanas, en cuatro fases, de acuerdo con los Pliegos de condiciones Económico-Administrativas y Técnicas que han regido la licitación, así como con la oferta del adjudicatario, que consta en el expediente. (A-1694-2016).

2º.- NOTIFICAR la adjudicación a todos los licitadores que no han resultado adjudicatarios.

3º.- REQUERIR asimismo al adjudicatario para que en el plazo de 10 días a contar desde el siguiente a la notificación de la adjudicación, concurra ante este Ayuntamiento para la formalización del contrato en documento administrativo.

El acto de formalización del contrato se efectuará en las oficinas de Secretaría General (Herriko Plaza, s/n- 2º planta) a requerimiento del Servicio.

4º.- PUBLICAR la adjudicación del contrato mediante anuncio en el perfil del contratante del Ayuntamiento de Errenteria y en el BOG.



#### **4. Herritarrak artatzeko zerbitzuari "ZU! Zure Udala-Servicio de Atención" marka onartzeko proposamena.**

Errenteriako Udalak abian jarriko du datozen hilabeteetan herritarrak artatzeko zerbitzua.

Herritarrak artatzeko zerbitzuak izendatzeko bi modu erabili izan ohi dira; bata orokorra, HAZ-SAC -Herritarren Arretarako Zerbitzua / Servicio de Atención a la Ciudadanía- siglak erabiliz modu generikoan eta deskriptiboan, eta bestea, izen propioa baten alde egin.

Lehenengoaren adibideak Irun eta Pasaia kasu, izen deskriptiboa mantendu dute. Donostiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak berriz, bestelako izen baten alde egin dute; UdallInfo eta Zuzenean aukeratu dituzte hurrenez hurren.

Bigarren izendatze motaren abantaila nagusia da zerbitzuaren izaera nabarmentzeko tresna aparta izatea. Hori dela eta, Udaleko Komunikazio eta Partehartze teknikaria bere txostenean agertzen du horren aldeko jarrera.

Errenteriako Udalerako diseinatzen ari den herritarren zerbitzuaren bidez, Udalak herritarren mesedera jarri nahi du udal administrazioa, herriko biztanleak ardatz izango dituen jarduna gauzatuz, alegia. Izan ere, errenteriarrengan jarri nahi baitu administrazioaren eta pertsonen arteko harremanean protagonismoa.

Era berean, nabarmendu behar da Errenteriako Udalak *ADN Kreaktibo* markarekin edo horretatik

#### **4. Propuesta de aprobación de la marca "ZU! Zure Udala-Servicio de Atención" para el servicio de atención ciudadana**

El Ayuntamiento de Errenteria pondrá en marcha los próximos meses el servicio de atención ciudadana.

Para la denominación del servicio de atención ciudadana se han utilizado dos modos, uno general, HAZ-SAC -Herritarren Arretarako Zerbitzua / Servicio de Atención a la Ciudadanía- utilizando siglas de modo genérico y descriptivo, y, otro, optando a favor de un nombre propio.

Como ejemplos del primer caso Irun y Pasaia han mantenido el nombre descriptivo. El Ayuntamiento de Donostia y el Gobierno Vasco, en cambio han optado por otro tipo de denominación; UdallInfo y Zuzenean han sido los que se han elegido respectivamente.

La principal ventaja del segundo tipo de denominación es que se trata una herramienta esencial para destacar el carácter del servicio. Por ello, el técnico municipal de comunicación y participación ciudadana se muestra en su informe partidario de dicha opción.

Por medio del servicio que se está diseñando para el Ayuntamiento de Errenteria, el Ayuntamiento quiere poner la administración al servicio de la ciudadanía, es decir, poner en práctica el que la población sea el eje de la actividad municipal. Ciertamente, se pretende que el protagonismo se instale en la relación entre la administración y las personas.

Así mismo, hay que destacar que el Ayuntamiento de Errenteria va a caracterizar con la marca ADN

eratorritakoekin ezaugarritu dituela Erreterria 2025 Plan Estrategikotik eratorritako proiektu ugari.

Arestian azaldutako balioak, aurrekari eta irisgarritasun zein erraztasun printzipioak kontuan hartuta marka egokia osatu da udalaren irizpideak eta ezagutza teknikoak jaso eta sormen balioa erantsi dion kanpo laguntza tekniko baten bidez. Laguntza tekniko hau Bitymina S.L. enpresak eman du, Komunikazio eta Partehartze teknikariak emandako irizpideei jarraiki.

Egindako eskaerari emandako erantzunak eta fintzeko prozesuak hurrengo marka eman zuten ondorio gisa: *ZU! Zure Udala – Servicio de Atención.*

Kreaktibo o de los que se deriven de él numerosos proyectos derivados del Plan Estratégico Erreterria 2025.

Se ha elaborado una marca adecuada teniendo en cuenta los valores, los precedentes y los principios de alcance y facilidad mencionados anteriormente, a través se una colaboración técnica externa que ha agregado los criterios del Ayuntamiento y el conocimiento técnico y el valor creativo. Dicha colaboración técnica ha sido facilitada por la empresa Bitymina S.L., en consonancia con los criterios aportados por el técnico de comunicación y participación ciudadana

Las respuestas que se dieron a la solicitud y el proceso de elaboración dieron como resultado la siguiente marca: *ZU! Zure Udala – Servicio de Atención.*



Logotipoak eta leloak osatzen dute *ZU! Zure Udala – Servicio de Atención* marka. Esan bezala, logotipoaren muina den *ZU!* hitzak herritarrari egiten dio erreferentzia eta berarengan zentratzen du zerbitzuaren protagonismoa. *Zure Udala Servicio de Atención* leloak, berriz, ekonomia linguistikoaren printzipioari jarraitzen du eta zerbitzuaren beraren deskripzioa egiten du udal zerbitzu gisa ezaugarrituz, herritarraren zentraltasuna nabarmenduz eta arretaren kontzeptua nabarmenduz.

El logotipo y la leyenda configuran la marca *ZU! Zure Udala – Servicio de Atención*. Como hemos mencionado la palabra esencia del logotipo *ZU!* Hace referencia al y a la ciudadana y centra en ella el protagonismo del servicio. Por otra parte, la leyenda *Zure Udala – Servicio de Atención* se somete al principio de economía lingüística y describe el propio servicio como servicio municipal, destacando la centralidad del y de la ciudadana, así como el concepto de atención.

Honekin batera doan “ZU! Zure Udala-Servicio de Atención” markaren *Marka eskuliburua* izeneko eranskinean azaltzen dira gainontzeko ezaugarri teknikoak; hala nola koloreak, gutxieneko tamainak, letra-tipoak, eta abar. Bertan azaltzen dira ere, markaren erabilerarako arauak ere. Dokumentu hori erreferentzia gisa erabili beharko da *ZU! Zure Udala Servicio de Atención* markaren erabilerarako.

Hizkuntzari dagokionez, nolabaiteko oreka mantenduta ere, euskarari ematen dio zentraltasuna. Era berean, izendapen honek gaintzen du euskara sinbolismo hutsean gelditzearen arriskua. Izan ere *ZU! Zure Udala* markaren zatiak funtzio erretorikoa ez ezik funtzio adierazkorra ere betetzen duelako.

Ikusirik 2017ko ekainaren 6an udal komunikazio eta partehartze teknikariak emandako aldeko txostena.

Ikusirik 2017ko ekainaren 9an Informazio Gizartea eta Herritarren Partehartzea azpisaileko arduradunak emandako aldeko txosten juridikoa.

Informazio Gizartea eta Herritarren Partehartzea azpisaileko Zinegotzi-delegatuaren proposamenez.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

## **ERABAKI DU**

1.- Errenteriako Udalak abian jarriko duen herritarrak artatzeko zerbitzuari ondorengo marka onartzea: “Zu! Zure Udala-Servicio de Atención”.

A todo esto se ha añadido el anexo denominado *Marka eskuliburua de la marca “ZU! Zure Udala-Servicio de Atención”*, en el cual se muestran el resto de características técnicas, así como los colores, las medidas mínimas, los tipos de letras, etc. Y, también se muestran las normas de uso de la marca. Dicho documento se utilizará como referencia de la marca *ZU! Zure Udala – Servicio de Atención*.

En lo concerniente al idioma, aunque se trata de mantener cierto equilibrio, se concede la centralidad al euskera. Así mismo, esta denominación rebasa el peligro de que el euskera quede en un lugar meramente simbólico. El fragmento Zure Udala de la marca no cumple solamente una función retórica, sino que también una función expresiva.

El técnico de comunicación y participación ciudadana ha emitido informe favorable, del 6 de junio de 2017.

La responsable de la Sociedad de la Información y Participación Ciudadana ha emitido informe favorable, del 9 de junio de 2017.

A propuesta del Concejal Delegado de la subárea de Sociedad de la Información y Participación Ciudadana.

La Junta de Gobierno Local por unanimidad.

## **ACUERDA**

1.- Que el Ayuntamiento apruebe la siguiente marca para el servicio que pondrá en marcha de atención ciudadana: “Zu! Zure Udala-Servicio de Atención”.





2.- Eranskinean doan “ZU! Zure Udala-Servicio de Atención” markaren “*Marka eskuliburua*” izeneko dokumentua onartzea.

3.- “Zu! Zure Udala-Servicio de Atención” marka, jabetza industrialerako eskubideak bermatzearren, Patente eta Marken Erregistroan inskribatzea agintzea.

4.- Erabaki hau jakinaraztea udaleko sail eta azpisail ezberdinei.

2.- Aprobar el documento denominado “Manual de Marca” de la marca “ZU! Zure Udala-Servicio de Atención”.

3.- Ordenar que se inscriba en el Registro de Patentes y Marcas la marca “Zu! Zure Udala-Servicio de Atención”, a fin de garantizar los derechos de propiedad industrial.

4.- Notificar esta resolución a las diferentes áreas y sub-áreas del Ayuntamiento.

-----

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:15 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, \_\_\_\_\_zenbakitik \_\_\_\_\_ra, eta nirekin batera Lehendakariak sinatu du. Egiaztatzen dut.

-----

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 09:15 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente Acta en los folios números \_\_\_\_\_ al \_\_\_\_\_ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Presidente. Certifico.